



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Mahastizaintza eta Enologia zerbitzua
Servicio de Viticultura y Enología

TXOSTENA: ARABAKO ERRIOXAKO ETA ARABAKO TXAKOLIN EREMUKO MAHASTIEN EGOERA, 2023/06/14

2023ko kanpainako mahastien egoerari buruzko txostenekin hasiko gara 2022ko mahats bilketatik gaur arteko egoeraren berrikuspena eginez.

2022ko udazkena

Udako joerarekin jarraituz, udazkena serie historikoko beroena izan zen. Era berean, prezipitaziorik eza izan zen ezaugarri nagusia urriaren erdialdera arte, orduan hasi baitziren sartzen depresioak, udazken osoan jarraitu zutenak, bizikiago urtaroaren amaiera aldean. Hala eta guztiz ere, udazkeneko euriek ez zuten zuzendu ere egin 2022ko urte meteorologikoko agorraldi egoera.

Negua 2022-2023

Urtearen amaiera eta urtarrilaren hasiera oso beroak eta lehorrak izan ziren. Urtarrilera arte ez ziren heldu izotzak, eta hilaren bigarren hamabostaldira itxaron behar izan zen negu-negua heltzeko, hau da, batez besteko tenperatura hotzak eta elurra izateko, Arabako Errioxan. Zenbait depresioen pasaerak 50-60ren bat litro ur eta elur utzi zituen, eta horrek lehendik jasaten ari zen agorraldi egoera arindu zuen pixka bat.

Otsaileko azken hamar egunetan, hotz polarra zekarren depresio batek elur prezipitazioak utzi zituen oso maila baxuetan, baina kopuru txikiaz.

Martxoa ere oso lehorra eta ohi baino askoz ere beroagoa izan zen, ia udari zegozkion tenperaturak izan baitzituen. Horren ondorioz, martxoaren amaieran mahastiak punta berdeak agertzen hasi ziren (C egoera).

2023ko udaberria

Apirilean, beroaldiak eta urik ezak jarraitu egin zuten. Martxoko eta apirilaren hasiera aldeko beroa gorabehera, mahastiek ez zuten eboluzionatu ziklo fenologikoan espero izatekoa zen bezala. Ur falta izan daiteke kimatzea eta landarearen garapena moteltzearen zergatia.

Apirilaren 5eko goizaldean, ia eskualde osora iritsi zen irradiazio-izotza gertatu zen. Lezan eta Guardian $-4,5^{\circ}$ C-ra jaitsi ziren tenperaturak, eta Arabako Errioxa gehienez $-2,5^{\circ}$ C-tik beherakoak izan ziren. Mahasti gehienak oraindik B egoeran zeudenez, eta zero gradutik beherako tenperaturak egunsentiaren aurreko 2 edo 3 orduetan bakarrik izan zirenez

gero, kalteak txikiak izan ziren. Izotzak eragindako afekzio batzuk detektatu ziren duela gutxi landatutako mahastietan, garnatxa bariatateaz landatutako lurretan -oso gutxi Arabako Errioxan-, goizago kimatzen baita, inausketa goiztiarra egindako lursailetan, sakonuneetan eta garaieragatik esposizio handiagoa duten finketan. Udalerriek dagokienez, eragindako ernamuinak zituzten mahasti gehienak Mañuetan, Lezan, Navaridasen eta, batez ere, Bastidan zenbatu ziren. Kalte hartutako lursailetan, narriatutako ernamuinen ehunekoa % 1en eta (kasurik larrienetan) % 25en artean zegoen.

Hala eta guztiz ere, apirila erregistroak daudenetik izan diren beroen eta lehorrenetako bat izan zen. Bero joerak jarraitu egin zuen maiatzeko lehenengo egunetan, tenperaturak udaberrikoa baino gehiago uztail-abuztukoa ematen zuelarik. Maiatzaren 10aren inguruan termometroak nabarmen jaitsi ziren, eta hileko gainerako egunetan tenperaturak ohi baino hotzagoak izan ziren. Euriari dagokionez, maiatzaren erdialdean 12 hilabetean metatutako ur defizita 250 litro/m² baino gehiago zen. Maiatzaren 20 aldean, lehenengo mildiu orbanak agertu ziren, eta ordura arte baldintzak onddoa garatzeko egokiak ez baziren ere, areagotu egin ziren prebentziozko tratamenduak, iragartzen ziren ekaitzak eta loraldi goiztiarra zirela eta. Maiatzaren bigarren hamabostaldian eta ekainaren hasiera aldean penintsula zeharkatu zuten ondoz ondoko depresio askatuek, Espainiako beste eskualde batzuetan ez bezala, Arabako Errioxan ez zituzten utzi litro gutxi batzuk baino, modu heterogeneoan. Hau da, lur azala freskatu eta busti baino ez zuten egin.

Neguko eta udaberriko tenperatura altuak zirela eta, apirilaren amaieran mahatsondoaren ziklo begetatiboa oso aurreratuta zegoen, baina maiatzaren hasiera aldean neutralizatzen joan zen, aipatutako aldi freskoa heldzearekin. Maiatzaren amaiera aldean loraldia apur bat aurreratuta iritsi zen, aurreko kanpainarekin alderatuta, hura ere goiztiarra izan zelarik. Egun horietarako, neguko lehortea eta bi urte baino gehiagoan metatutako defizita gorabehera, mahasti gehienek aurre egiten zioten sakoneko ur faltari, mahats laginak kanpaina honetako gutxienekoak betetzeko behar adinakoa izaten jarraitzen baitzuen, oro har. Hala ere, eremu lehor eta pobreenetan dauden mahastiek klorosi seinaleak agertzen zituzten, elikagaiak behar bezala disolbatzeko behar zen hezetasuna falta baitzen.

ARABAKO TXAKOLINA

Arabako txakolin eremuan ere mahats bilketaren ondorengo hilabeteak oso beroak eta lehorrak izan ziren, aurreko uztaren joerari jarraituz, hartan prezipitazioa estatistiken arabera izan ohi denaren ehuneko berrogeita hamarrera murrizturik gertatu baitzen. Urtarrilean eta otsailaren erdialdera arte, tenperaturak garai horretako ohiko balioetara jaitsi ziren, eta 250 l/m²tik gorako ur eta elur prezipitazioak izan ziren hilabete baino pixka bat gutxiagoan. Errioxan bezala, apirilaren 5eko goizaldeko izotzak ondorioak ekarri zituen, eta C egoeran (punta berdea) zeuden mahastietako batzuei eragin zien. Mahastirik goiztiarrenak eta esposizio handiena dutenak, bigarren ernamuintzearen ondorioz partez suspertu baziren ere, errendimendu potentziala gutxituta hasi zuten kanpaina.

Nola Arabako Errioxan, hala Arabako txakolinaren eremuan, neguaren amaiera eta udaberriaren hasiera oso beroak eta lehorrak izan ziren. Apirilean, Aiara haranean ere, ur falta eta tenperatura altuak nabari ziren mahastien itxura orokorrean.

Maiatzean, Arabako Errioxako baldintza berdinak izan ziren Aiara Haranean: tenperatura altuak hilabete osoan zehar, atsedendaldi batekin erdialdean, eta depresio askatuen pasaera, zeinek ez baitzituzten utzi aldizkako euriak baino, ugariagoak Kantauri itsasotik hurbilen dagoen aldean, baina hor ere neguko eta udaberriko defizita zuzendu gabe.

Maiatzaren amaiera aldean, loraldia orokor egin zen eta, ondorioz, egutegi fenologikoa 2022an gertatutakoaren ia berdina zen. Ekoizpen ahalmena altua zen garai horretan, izozteak eragindako lurzatieetan izan ezik. Maiatzean modu heterogeneoan eroritako 25-60 litro eskasek ahalbideratu egiten zuten hilaren bukaeran mahastien egoera, oro har, ona izateko.

EGUNGO EGOERA

Gaur egun, ikus daiteke mahastiek egoera fenologiko desberdina dutela: loraldia amaitzear, fruitu-hartze fasean eta ilar-tamainako pikorrekin ere.

Kanpaina honetan, **Arabako Errioxan**, lehenengo loreak San Isidro egunean ere ikusi dira; ondoren etorri zen eta garu arte iraun duen temperatura-jaitsierak moteldu egin zuen garapena eta, ondorioz, loratze-datak gutxi gorabehera 2021ekoekin bat etorri dira. Sarrien ikusten den egoera fenologikoa loraldi betekoa da (I2). Dagokion moduan, eskualdeko ekialde eta hegoaldeko aldean mahatsondoak aurreratuago daude eta mahasti batzuk fruitu-hartzea (J) amaitzen ari dira. Egun gutxi barru, ikusi ahal izango dugu mahatsondo gehienetan mordo guztiek fruitua dutela. Ikusirik ondo bakoitzeko mahats mordoan kopurua, horien tamaina eta fruitu-hartzea osatzen ari den modua, mahasti askotan beharrezkoa izango da berdetan soilketak egitea. Mordoak kenduta, kanpainarako baimendutako gehienekoetara mugatzen da errendimendua, eta ondoa arintzea lortzen da, luzaroan jasaten ari garen lehorrea dela eta.

Igandetik, hilaren 11tik, ekaitzak eta zaparradak izan dira, eta batez beste 20 l/m² jotzen ditugun ur kopuruak utzi dituzte. Eroritako ura oso onuragarria izaten ari da, baina ez da nahikoa lurraren geruzarik sakonenetan hezetasun faltaren arazoa konpontzeko.

Osasunari dagokionez, mahastiek egoera onean irauten dute, prebentzio tratamenduak ohi bezala egiten baitira. Urtea aurrera doan bezala, ez dirudi mildiua aurten arazo handia izango denik. Hala ere, zurin arriskua handia da. Izurriei dagokienez, ez dago eragin handirik, ez sitsarenik, ez akaroenik, ez piralarenik; trip-ei dagokienez, berriz, beste urte batzuetan baino presio handiagoa ikusten da. Beraz, hala irauten badu, intsektu horren kontra tratatzen hasi beharko da.

Apirilaren 5eko izoztearen ondorioei dagokienez, mahastiak oraindik egoera fenologiko goiztiarrean zegoenez, mahatsondoek begi sekundarioetan kimu berriak sortu ahal izan zituzten eta eragin gabeko begi emankor askotan. Hori dela eta, daitekeena da oso lursail gutxi izatea -tempranillodunak behintzat- horren ondorioz errendimenduak JDKaren Kontseilu Arautzaileak urte honetarako ezarritako gehieneko mugetatik behera murriztuta dauzkatena (gehieneko hori 5.850 kg/ha da barietate beltzetarako).

Aiara haranean, mahastiak gehienbat loraldi osoko (I2) eta fruitu-hartzearen amaierako (J) egoera fenologikoetan daude, eta mahasti batzuk dagoeneko ilar-tamainako pikorren fasera (K) iritsi dira. Gutxi gorabehera astebete aurreratuko da laborantza. Ohiko tratamenduak egin ondoren, osasuna apartekoa da, aipatu beharreko arazo handirik gabe orain arte, ez bada neguko ur eskasia: kanpaina honetan, orain arte, prezipitazioak ez dira normaltzat hartzen denaren % 50era ere iritsi. Zorionez, ekainaren erdialdean erortzen ari diren euriak oso onuragarriak izaten ari dira.

Azken batean, gaur egun, ekainaren 14an, mahastiak aurreratuta daude, ekoizpen-potentzial handia eta osasun egoera bikaina dituzte, eta, udaberriaren amaiera normalean

baino euritsuagoa eta freskoagoa izan denez, metatutako ur defizitari ongi aurre egiten ari zaio. Badirudi apirilaren hasierako izotzak ondorio txikiak izango dituela Arabako Errioxan, eta proportzionalki handiagoak Arabako txakolinaren eremuan.

Arabako mahasti guztietan, zerura begira jarraitzen dugu, loraldiaren amaiera - fruitu-hartze une minbera honetan, non nagusi diren elementu meteorologikoez istripuengatik edo gaixotasunen eraginagatik eragin handia izan baitezakete landarearen garapenean. Egun batzuetan, euria, haize gogorrak eta kazkabarra dakartzaten ekaitzak izateko arrisku abisuek jarraitzen dute.

Oraingoan, egun hauetako euri desberdinak oso onuragarriak izaten ari dira, baina oraindik uda luze bat daukagu aurretik eta, beraz, mahastien portaerari buruzko zalantzak irauten du, hain lehorte iraunkorraren ondoren, lur azpiko hezetasun erreserbak hain urriak direlarik.

Egun honetatik aurrera eta mahats bilketa egin arte, 2 astean behin gutxi gorabehera, edo edozein momentutan, gorabehera aipagarriak gertatuz gero, mahastizaintzako kanpainaren egoerari buruzko txostenak egingo ditu Arabako Foru Aldundiaren Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuak.

Guardia, 2022ko ekainaren 14a

MAHASTIZAINZA ETA ENOLOGIA ZERBITZUA
ARABAKO FORU ALDUNDIA